

SARRERA (PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA)

Gure taldeak sortu duen ideia edota objektua kolorea alda dezakeen maskarilla bat da. Zergatik uste dugu ideia bikaina dela eta salmenta handiak izateko aukera izango duela? 2020.urtea nahiko txarra izan da denontzat Covid-19a dela eta, horregatik egoera honi aurre egin ahal izateko era edota modu desberdin, “dibertigarria” eta modan dagoen maskarilla hori sortu dugu. Gaur egun, etxetik maskarilla gabe ateratzea ezinezkoa da eta azken finean zerbait desberdina izatea ez dago gaizki, denok dugu gustuko. Gure proiektuarekin bat datorren logo bat ere sortu dugu:



Kameleoiaren ideia hartu genuen influentzia bezela, beraien azalaren kolorea aldatzen dutelako gure maskarilla bezela.

Gure helburua azken finean, munduan zehar bere itxura benetan zaintzen duten pertsoneri maskarilla erabiltzeko beste modu berezi bat eskeintzea da.